

A1Maila

Bideoa ikusi eta erantzun galdera hauei.

1. Zertan ari da Josu?

- a) Liburua irakurtzen ari da
- b) Eskolako lan bat prestatzen ari da
- c) Azterketa garrantzitsu bat prestatzen ari da

2. Eta nola ikusten duzu Amaia?

- a) Urduri dago Josuri begira
- b) Haserre dago Josurekin
- c) Oso aspertuta dago

3. Orain ikusi bideoaren lehen atala. Zer gertatu da? Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Amaia oso gustura dago. Josu azterketa prestatzen ari da, eta estu eta larri dabil.
- b) Josu kezkatuta dago Amaiak bakean uzten ez duelako.
- c) Josuk lan bat bukatu behar du eta estu dabil, baina Amaia aspertuta dago eta ez dio bakean uzten.

EGIA ALA GEZURRA DA?

Irakurri beheko esaldi hauek, eta ondoren ikusi bideoa. Ikusi bitartean adierazi taulan **egia** edo **gezur** diren. Ondoren, saiatu gezurrak zuzentzen.

	EGIA	GEZURRA
Amaiak poteatzera joateko proposamena egin du .		
Josuk informazioa eskatu dio liburuteginari ordutegiari buruz		
Josu larunbatean liburutegira joango da azterketa garrantzitsu bat prestatzera.		
Josuri asko kostatzen zaio jendearen aurrean hitz egitea.		
Josu oso urduri dago lanaren aurkezpenarengatik.		
Aurkezpenean Josuk ondo idazteko teknikez hitz egin behar du.		

LOTU EGOERA ELKARRIZKETAREKIN

Behean bideoaren une desberdinak dituzu. Irakurri ondoko elkarrizketak eta lotu dagokion unearekin. Ariketa egiteko zalantzak badituzu, bideoaren transkripzioa irakurri ahal duzu.

- A. Amaia ez da isiltzen, eta Josuk oso haserre, ospa egiteko esan dio.
- B. Amaia aspertuta dago eta Josu ez du bakean uzten.
- C. Amaiak ostiralean afaria dutela esan dio Josuri.
- D. Amaiak poteatzera joateko proposatu du.

ELKARRIZKETAK

- J. Amaia... Nahikoa da!**
A. Josu goazen kalera, aspertuta nago...
J. Ezin dut! Lan hau bukatu behar dut, bihar daukat aurkezpena.
- A. Jo, goazen... eta nahi baduzu, poteatzera joango gara.**
J. Ez didazu entzun? Ezin dut, Amaia.
- A. Baina bakarrik etorri beharko duzu. Ostiralean afaria eta gero parranda dugu...**
J. Egia! Kaka zaharra!
- A. Ezingo duzu asko edan. Eta, txintxo-txintxo, goiz ohera.**
J. Aizu. Nahikoa da! Hemen egon nahi baduzu, ixo eta bakea eman. Bestela, ospa!

ELKARRIZKETAREN UNEAK

Transkripzioa

JOSU.- Amaia...

JOSU.- Amaia... Nahikoa da!

AMAIA.- Josu, goazen kalera, aspertuta nago...

JOSU.- Ezin duzu. Lan hau bukatu behar dut. Bihar daukat aurkezpena.

AMAIA.- Jo, goazen... eta nahi baduzu, poteatzera joango gara.

JOSU.- Ez didazu entzun? Ezin dut, Amaia.

AMAIA.- Ados. Orduan lagundu egingo dizut, eta kitto.

JOSU.- Ezin duzu, ahoz aurkeztu behar da, eta jakin beharko dut zer esan, ezta? Brrr... hau komerial!

AMAIA.- Horixe, lana egin behar denean, zu parrandan; eta azken momentuan estu eta larri.

JOSU.- Ba begira, Amaia, badago zerbait egiteko. Niri laguntzeko, zoaz liburuzainarengana eta eskatu informazioa.

AMAIA.- Informazioa?

JOSU.- Bai, larunbatean hona etorri nahi dut, beste lan bat bukatzera. Galdetu ordutegia.

AMAIA.- Ondo da, beharbada zabalik egongo da. Banoa! Oraintxe nator.

JOSU.- Xxxxt! Baxuago!

AMAIA.- Barkatu!

JOSU.- Ez dut bukatuko lan hau...

ETENA

AMAIA.- bai, Josu, nahi baduzu, etorri larunbatean, ordu bata arte irekita dago.

JOSU.- Ederki, mila esker.

AMAIA.-Baina bakarrik etorri beharko duzu. Ostiralean afarria eta gero parranda dugu...

JOSU.- Egia! Kaka zaharra!

AMAIA.- Ezingo duzu asko edan. Eta, txintxo-txintxo, goiz ohera.

JOSU.- Aizu. Nahikoa da. Hemen egon nahi baduzu, ixo eta bakea eman. Bestela, ospa!

AMAIA.- Jesus, motel, ez jarri horrela; isilduko naiz, bai.

JOSU.- barkatu, neska, oso urduri nago.

AMAIA.- Egon lasai, Josu, ondo egingo duzu lana, seguru.

JOSU.- bai, baina niretzat zailena arbelera atera eta denen aurrean hitz egitea da. Oso urduri jartzen naiz.

AMAIA.-Zu?

JOSU.- Bai.

AMAIA.- Eta zein da gaia?

JOSU.- Jende aurrean hitz egiteko teknikak.

AMAIA.- Jajajajaja!

ERANTZUNAK

Erantzun galdera hauei.

1. Eskolako lan bat prestatzen ari da.
2. Oso aspertuta dago.
3. Josuk lan bat bukatu behar du eta estu dabil, baina Amaia aspertuta dago eta ez dio bakean uzten.

Egia ala gezurra da?

Amaiak poteatzera joateko proposamena egin du	EGIA
Josuk informazioa eskatu dio liburuzainari ordutegiari buruz	GEZURRA
Josu larunbatean liburutegira joango da azterketa garrantzitsu bat prestatzera.	GEZURRA
Josuri asko kostatzen zaio jendearen aurrean hitz egitea	EGIA
Josu oso urduri dago lanaren aurkezpenarengatik	EGIA
Aurkezpenean Josuk ondo idazteko teknikez hitz egin behar du.	GEZURRA

Lotu egoera elkarrizketarekin

- Amaia aspertuta dago eta Josu ez du bakean uzten.
- Amaiak poteatzera joateko proposamena egin du.
- Amaiak ostiralean afaria dutela esan dio.
- Amaia ez da isiltzen, eta Josuk oso haserre, ospa egiteko esan dio.